

OHARRA

Neurri Ekonomikoen Mahaia: dinamika aldaketa eta balorazioa

Astero batzen ez segitzeko erabakia hartu du asteon Neurri Ekonomikoen Mahaia, egoera bestelakoa dela iritzita. Orain artean, askotarikoak izan dira bertara eroan diren proposamenak: herriko komertzioendako, ostalariendako eta zerbitzu sektoreko negozioendako diru-laguntzak; herrian erosteko edota bertako zerbitzuak erabiltzeko bonu sistemari egindako ekarpenak; Gizarte Zerbitzuen alorreko partida ekonomikoak handitzea; bonu sozialak sortzea; hainbat zergen ordainketa etetea edo atzeratzea; ikasketa telematikorako zailtasunak izan dituztenei internet sarbidea ahalbidetzea... “Gobernu taldeko kideok buru-belarri jardun dugu -eta dihardugu- osasun krisiak herritarrengan eragindako kalteak leuntzeko ahaleginean. Neurri Ekonomikoen Mahaira eroan ditugu ostean. Hark begi onez ikusi ditu gobernu taldeak egindako proposamen guztiak, osasun krisian martxan jarri direnak, alegia. Pozik gaude horrekin”, azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak. Aurrerantzean, unean uneko beharrek hala eskastuta batuko litzateke Neurri Ekonomikoen Mahaia.

Hain zuzen ere, udal ordezkariak –Izaro Elorza alkatea, Xabier Igartua Ogasun eta Sozioekonomia batzordeburua, Anik Zubizarreta Partaidetza eta Garapen komunitario batzordeburua, Ainhoa Galdos oposizioko udal bozeramailea eta Jon Kepa Gerrikagoitia Sozioekonomia batzordeko kidea- eta hainbat alorretako udal teknikariak -Ogasun, Sozioekonomia eta Gizarte Zerbitzuen alorrean dihardutenek- osatzen dute Neurri Ekonomikoen Mahaia. “EAJren proposamenez sortu genuen mahaia, egoerari aurre egiteko lagungarri zatekeelakoan. Finean, ekarpenak beti dira ongi etorriak”, azaldu du gobernu taldeak. Hori bai, onartu du ez dela espero bezain emankorra izan, “oposizioaren ekarpen zehatzik izan ez delako”: “Gobernu taldeko kideok landutako proposamenak besterik ez dira bertara iritsi, eta horiei loturiko proposamen gutxi jaso dira oposizioaren partetik. Esan daiteke, oro har, elkargune informatibo izatera mugatu dela. Pena da hori. Badago zer pentsatua”.

Era berean, herritarren alde lanean segitzeko konpromisoa berretsi du udal gobernu taldeak: “Lanean jarraituko dugu herritarrekin, oñatiarron mesedetan proposamenak lantzen. Besteren artean, oso emankorrak ari dira izaten herriko komertzioetako kideekin, tabernariekin, ostalariekin, gastronomia elkarteko kideekin, eragileekin... izaten ari garen bilerak. Oso eskertuta gaude haien jarrerarekin. Berdinean segituko dugu”.